



# KOLOREEN MINTZAIRA

## 8.- Koloreen paleta (1)

Gida didaktikoa

## 8.- Koloreen paleta (1)

Gaur egun, edozein materialetan edozein kolorez margo daiteke. Baina beti ez da horrela izan. Garai batean, koloreak egiteko pigmentuak urrutiko tokietatik ekarri behar izaten ziren: Afganistandik, Alemaniatik eta abar.

Asko hitz egin dugu dagoeneko koloreez, baina jakin ezazue kolorerik gabeko koloreak ere badaudela. Eguzkiaren espektroan agertzen ez direnak dira: zuria eta beltza; eta, jakina, zuria eta beltza nahastuz lortzen diren grisak ere kolorerik gabeko koloreak dira.

Bideo hau koloretako paletari eskainiko diogun lehena da. Bideoan, koloreek naturan hartzen duten lekua eta euren erabilera historian aztertuko ditugu.

Lantegia atalean, ariketa erraz batzuen bitartez, grisen mailaketa osatuko dugu.

*Bideoa ikusi aurretik, doitu zure telebistaren sintonia, kroma, distira eta kontrastea, gida honetako NOIZ ETA NOLA ERABILI atalean esan bezala.*

- |          |   |
|----------|---|
| 02:00:00 | – Sarrera.  |
| 04:22:02 | – Koloreak, paletak eta margolariak.  |
| 07:36:08 | – Koloreak komunikabideetan.  |
| 10:51:03 | – Kolorerik gabeko koloreak.<br>Zuria. Beltza. Grisa.<br>Kolorerik gabeko koloreen mailaketa. |
| 20:08:07 | – Lantegia: grisen mailaketak.  |

### **Lantegia: grisen mailaketak.**

Lantegia atala ikusi, eta lanerako beharko ditugun materialak prestatu ondoren, ariketa egiteko moduan izango gara. Ikusi ahal izango dugun bezala, ariketak oso errazak dira. Arreta pitin bat eta pazientzia baino ez dute eskatzen.

Erabiliko ditugun materialak:

- Egunkariak eta aldizkariak.
- Paper zuri lodia.
- Guraizeak.
- Txantiloiak paperen tamaina zehazteko.
- Lekeda.

**Kolorerik gabeko koloreak.** Eguzkiaren espektroan agertzen ez diren koloreei deitzen zaie kolorerik gabeko koloreak. Zuria, beltza eta grisak dira.

**Paleta:** Pintoreek, koloreak nahasteko, erabiltzen duten xafla.

## 8. kapituluko hiztegia

### **LIBURUAK**

<b>¿Qué es la luz?</b>	Heel. Guadarrama. Madrid-1968
<b>El color del aire libre</b>	Wels. Omega. Bartzelona-1965
<b>Luz visible y luz invisible</b>	Ruechardt. Labor. Bartzelona-1960
<b>El gran libro del color</b>	Blume. Madrid-1990
<b>Arte y percepción visual</b>	Arnheim. Alianza. Madrid-1979
<b>La interacción del color</b>	Albers. Alianza. Madrid-1979
<b>El lenguaje del color</b>	Sanz. Blume. Madrid-1985

Koloreen mintzaira eta koloreek ematen duten informazioa etengabe aldatzen ari da. Horregatik, goian aipatu liburuak oso garrantzitsuak izan arren, bada beste bat, gu geu egunero osatzen ahaleginduko garena. Ikasleak lantegi orduan egingo dituen ariketa eta haien gaineko oharrak jasoko dituen koadernoaz ari gara. Horixe izango da, ez izan dudarik, koloreen gaineko gure ohar biltegirik onena.

### Ekoizlea:

**iadi**

### Banatzailea:



M. Ortiz de Urbina pintorea, 3  
11. bulegoa  
01008-Gasteiz  
Tel-faxa: 945200608

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILAK  
ONETSIA

2003-05-22